6. Norbaitekin naiz kanpoan, badakit euskalduna dela, euskaraz mintzatuko naiz berarekin?	%47	%53	%0
7. Nahi nuke klasea frantsesez izatea	%6	%82	%12

Hemen ikusten den bezala, ikasle gehienek ez dute euskara mintzatzen familian. Oro har, eskolatik kanpo, gehienek ez dute erregularki euskara erabiltzen ere. Baino, %30k etxean erabiltzen dute, batzutan bederen. Hasteko, zenbaki hau ez da guti. Erran nahi du klaseko herenak ingumenarengandik nolabait bultzatuak direla euskara ikasteko. Gero, *erabilpenak* edozein egoera barne hartzen ahal du (aitatxirekin batzutan, lagunen burasoekin, dantza taldean, hegoalderat joatean...). Horrez gain, %65k erabili izan dute noizbait eskolatik kanpo. Zenbaki hau garrantzitsua da, klasearen herenak hizkuntzaren esperientzia soziala jadaneko bizi baitute. Euskarak funtzi soziala duela konprenitzea erronka handia da irakaskuntza elebidunean. Horren segidan, berriz %65k uste dute gai izaten ahal direla ezaguna ez den norbaitekin euskaraz mintzatzeko. Aldiz, ehunekoa jausten da %47rat kasu konkretua aipatua delarik: *norbaitekin naiz kanpoan, badakit euskalduna dela, euskaraz mintzatuko naiz berarekin?* (6). Horrek erakusten du, teorian bederen, haien burua orokorki ikusten dutela euskaraz mintzatzen. Gero, praktikatu orduko, ez dira seguraski ausartuko. Hala ere, guretzat lehen itxura ona da. Horrez gain, ikasgelan, %30k baizik ez dute uste maila apalagoa dutela bertzeak baino. Suposatzen dugu beraz konparaketa forma guti dagoela klasean, gehienek hortan ez baitute iritzirik ere. Orokorki, erraten ahal dugu hizkuntzarekin harreman aski ona dutela. Froga gisa, gutienez %82k argiki diote ez luketela euskaraz ikasteari utzi nahi frantsesarekin aldatzeko.

1.4.2.2. Mintzaira egoerak

Aldi honetan galdetua zaie haien pertzepzioen autoebaluazioa egitea. Oa izanik itemaren balio apalena, eta 10a handienezko balorazioa. Hemen irakurriko ditugun emaitzak klasearen iritzitzat hartuko ditugu. Taula honetan agertzen dira emaitzen banabestekoak.

Banabestekoak (/ 10)	Ítema
7.03	8. Euskararen erraztasuna
6.94	9. Euskararen ulemerna
6.82	10. Maila euskaraz (autopertzepzioa)
8.94	11. Maila frantsesez (autopertzepzioa)
7.82	12. Erosotasuna euskara mintzatzean
2.79	13. Hutsak egitearen beldurra
2.76	14. Bertzeen jarrera (nitaz trufatuko dira)
3.97	15. Mintzatzeko uzkurtasuna preparatua naizelarik
3.44	16. Mintzatzeko uzkurtasuna preparatua ez naizelarik
7.47	17. Ahozko ausarketa (adibidez, hitzegia galdu)
6.41	18. Mintzatzeko plazerra (orokorra)
3.47	19. Isiltasunaren hobestea (adibidez, zerbait ez badut konprenitzen)

Lehenbzik, azpimarratu nahi nuke ikasleen iritziz euskara ez dela *zaila*. Noski, galdera orokorra da eta ez du berez gauza anitz erran nahi. Baina, garrantzitsua zaiguna da ikasleen ikuspegia. Eskualde hizkuntzen aurkari batzuek diote euskara gainkargu koñitiboa izan daitekeela haurrentzat, hizkuntza zaila baitzaio eta ondorioz deserosoa. Horrek, ordea, argiki erakusten du ikaslearen ikuspundutik guziz gezurra dela.

Hizkuntzaren ulermenaren (9) aski ongi ateratzen da, 7/10 inguruan. Lotura egiten du nik ikusi dudanarekin : eguneroko funtzionamenduan, ikasle guziek arazorik gabe ulertzen dute eta edozein gisaz aski ongi moldatzen dira mintzatzean. Beraz, printzipioz ez da hizkuntza harresirik klasean eta abiapuntu gisa gauza ona da.

Erosotasuna (12) eta plazerra (18), piska bat apalagoak baldin badira ere, nota onak ukanditzte. Orokorki lortzen dute haien ideiak adierazten eta ikasgelaren dinamikan sartzen. Egiada ere ausartze tasa (17) arrunt handia dela. Horrek oihartzun egiten du hutsak egitearen beldurrarekin (13) eta isiltasuna hobestearekin (19), arrunt apalak direnak ere bai. Orduan, iduriz ikasleek aise parte hartzen dute klasearen dinamikan, euskarak ez baititu trabatzen zerbaite galdezko. Ene ustez, barneratu dute hutsaren egitea ikas prosezuaren parte dela. Horri esker, ez dira tronpatzearren beldur ezta klasekideak haietaz trufatzeaz ere.

Bertze aldetik, banaka hitz egitean ez dute ere lotsa handirik sentitzen. Preparatuak direlarik (15), piska bat handiagoa da ez delarik baino. Bainaz ezin dugu baieztago uzkurtasun hori antsietatea dela. Ene iritziz, estresari lotzen ahal dugu gehiago, denentzat egoera deserosoa izaten ahal baita bertzeen aitzinean mintzatzea. Ene ustez, frantsesetan ere naski berdin erantzongo luke. Orduan bigarren hizkuntzarekin loturarik ez da baitezpada ikusi behar. Edozein gisaz, klaseko maila aztertu eta gero, ez dago orain arte antsietate seinale adierazkorrik. Gainera, preparatu ez den mintza egoera batean, herabetasun sentsazio hau are guttiago badute. Azpimarratzen du elkarritzetako ahozko praktikan ez dagoela zaitasun nabarmenik.

1.4.2.3. Egoera konplexu batean

Bukatzeko, galdera simple bat erantzun beharko dio ikasleak: *zer lanbide egin nahi duzu handia izanen zarelarik?* Interesatzen gaituena ez da zer erantzuten duen, baizik eta nola.

Zer egin nahi duzu handia izanen zarelarik?	Bai	Ez
Hiztegia galdetzen du bere ideia eraikitzeko	%65	%35
Bere azalpena garatzen / justifikatzen du	%35	%65
Ongiezaren seinale adierazkorra	%53	%47

Bistan da gure helburua ez dela behar dituen hitz guziak jakin ditzan. Horretan gure errola da ikaslea laguntzea. Normalean, hiztegia galdezko usaia sartua da klaseko funtzionamenduan. Orain, jakin nahi dugu ikaslea gai den horren eskatzeko. Oro har, gehiengobatek galdetzen du falta zaiona erranaldia formulatzeko. Hala ere, kasik heren batez da ausartzen hori egitera. Printzipioz, erran nahi du zailtasunetan direla eta egoera horretatik ateratzeko ez liratekeela gai izanen irakaslearen laguntzarik gabe. Ene iduriko, %35ek itxoiten zutenene laguntza, ez baitira usatuak bakar-bakarrik mintzatzeko neholazko sostengurik gabe. Oroitzen bagara %65k gai sentitzen zirenak, parte horretatik kanpo diren %35 berdinak izan daitezke azken horiek. Orduan, ene ustez beti, batzuk beti laguntza ukaiteko menpekotasuna sortu dute euskaraz.

Gero, gutik ere garatzen dituzte beren ideiak. Egia erran, item hau mailaz goregi da ikasleentzat, programen arabera. Oroit gaitezen A2 mailan ingurumen hurbilari buruzko erreferentziak baizik ez daitezkeela galdu. Hala ere, interesgarria da ikustea noraino joan daitezkeen azalpenetan. Batez ere, erosotasunaren frogarik hoherena izanen da. Egiazki, klasearen %35a azalpenetan sartu da. Beraz, taldearen anitzasuna kontuan hartuz eta programen helburuen arabera, emaitza nahiko ona da.

Alta, elkarrizketa gehienetan ikusi izan ditut ongiezaren seinaleak: ikasleak kadiran mugitzen, eskuak bizkarrean, zangoak ikaran, aurpegia gorritzen... Adin horretan ohikoak izaten baitira ere, ez dira baitezpada adierazkorak. Noski, hirugarren zikloan, mintzaira autonomia ez dutela oraino lortu. Beraz, ezin dugu haiengandik espero azalpen garatu bat aldi oroz. Halabaina, gai izan behar lirateke erranaldi simple bat egiteko. Hemen ikusten dugu ikasgelaren esparrutik piska bat ateratzen baldin bagara, uzkurtasuna eta estresa emendatzen direla. Bainaha ere, %53k baino ez dituzte keinu ikusgairik erakutsi. Orduan, kasik erdiak ez du egoera horretan ere sintomarik eduki. Horrek erran nahi du fitsik preparatu gabe, klasearen erdia egoera konplexu batean entseatzen ahal dela mintzaten. Guretzat, emaitza bihotz altxagarria da.

Laburbilduz, galde-sorta mixto horrek lagundi gaitu klaseari buruzko informazio anitz ateratzen. Ondorioztatzen ahal dugu ikasgelaren antsietate maila orokorra nahiko apala dela, egoera normaletan bederen. Euskarari buruzko iritzi nahiko positiboa badute denek eta beraz gehienak ez dira aitzinetik mintzatzeko beldurtuak. Argi da ikasleen pertzepzioak irakasleak plantan ezartzen duen esparru eta praktika pedagogikoak isladatzen dituela. Noski, horregatik, orain nahi dugu jakin zein faktorek sortzen duten horrelako erosotasun giroa. Oinarri gisa, analizatuko dut Michäelen praktika ahal bezain zehazki. Ber ikasleekin gero lan egin dezagun, hobe da lehenbizi usaia duten funtzionamendua ezagutzea eta aztertzea.

2. Uhendere eskola eta mintzaira antsietaaren prebentzia

Bigarren parte horretan, antsietaea prebinitzeko printzipio nagusiak aztertzen entseatuko gara. Erronka nagusia izanen da nola egokitutako pedagogia ahozko sustatzeko. Noski, nahi dugu ikasleak eroso senti daitezen ahalik eta lasaien euskara ekoiz dezaten. Horretarako, garrantzitsua da lehenik klasea ezagutzea. Irakaslea klasearen funtzionamenduaren berme izanik, didaktika ongi pentsatua izatea baitezpadakoa zaio. Azken finean, *getariako albistegia* proiektua abian emateko xedearekin, ene MATaren pedagogian oinarrituko naiz.

2.1. Euskararen irudikapen positiboa mantendu

Ikasle elebidunek, tipitatik, hizkuntzarekin harremana eta irudikapenak eraiki dituzte. Ohartu gabe, horrekin beraz euskararekiko jarrera sortu dute era berean. Orduan, lehenbizi suposatzen ahal dugu harremana ahalik eta onena izateko, beren irudikapenean lan egiten ahal dela.

2.1.1. Irudikapenaren garrantzia

Lehenik oroit gaitezen antsietaek mintzaira egoera batzuei irudikapen gaitzak ekartzen dizkiela. Ondorioak zabalduz, badakigu ikas prozesua trabatzen ahal duela. Beraz, gure pedagogiaren pentsatzean, abiapundua izan liteke euskararen irudikapenean lan egitea. Erran nahi du hizkuntza, berez, lanaren objektua izatea. Oinarri teroriko gisa, Moorek⁹ azaltzen du hizkuntzarekiko irudikapen positiboak ikaslearen motibazioa emendatzen duela. Ipar Euskal Herrian, ikasleak gehienetan tipitatik elebidun sailan izan badira ere, ez dute baitezpada hizkuntzaren kontzientzia osoki eraiki. Orduan, hizkuntzaren gainean lan egitea onuragarria liteke hiztun osoa izateko. Michaëlen ikasleek hortan lan egiten dute Getariako eskolan urteetan zehar proiektu ezberdinak. Orokorki, Moorek aspektu batzutan banatzen ditu hizkuntzaren jabetzeko lan pistak izan daitezkeenak:

2.1.1.1. Aspektu propioa

Irudikapenaren eraikuntzan, lehenengo etapa liteke. Hau da hizkuntza propioa galdezkatu. *Polita ote da euskara ? Maite duzu euskara ikastea ? Zaila atzematen duzu ?...* Bigarren eta hirugarren zikloetan iritzia adieraztean lan egiten baita, parada ona da norberak hizkuntzari buruzko usteak esprimi ditzan. Era berean, egiazko problematikak sartzen ahal

⁹ Ekarpen teorikoak argitalpenatik hartuak : Moore, D. (2001). *Les représentations des langues et de leur apprentissage, références, modèles, données et méthodes*. Didier.

ditugu : *euskara erabilgarria ote da ?* Horretan, ahozko podkasta grabatu zuten ikasleek : “*Zergatik ikasten dugu euskara?*” izenburua zuena. Usaian bezala, haien asmatu dute testua eta euskaraz grabatu, noski. Formatu horren bidez, euskararen irakaskuntzaren funtziak eta aldeak agerian eman zituzten. Horrela, ikasleek hizkuntzaren erronkak jabetzen ahalko dituzte, euskara mintzatzuz. Laburki erranik, xeda da haurrek zentzia eman diezaioten haien presentziari elebidun sailan. Horrek, berez, eguneroko jarreran eragin handia ukaiten ahal du.

2.1.1.2. Aspektu eleanitza

Ikasleek frantsesa eta euskara ahal bezain orekatuki erabil ditzaten, bigarren hizkuntzaren erronketan lan egin beharko litzateke. Alde batetik, elebitasunaren konzentzia garatuko dugu hizkuntza landuko dugularik. Hortakotz, eraginkorragoa litzateke konparaketak egitea. Batez ere, euskara eta frantsesa parez pare ezartzeak gaitasun metalinguistikoak hedatuko ditu. Horren irudikatzeko, erakutsi behar da ere jende batzuek, bertze lekuetan ere, hizkuntza ezberdinak hitz egiten dituztela eguneroko bizitzan. Adibidez, Frantzian, badira gurea bezalako eskola elebidunak bretoinez, kortsikarrez, okzitaniarrez... lan egiten dutenak. Getarian, urte batez, elkarrizketan sartu ziren Bretaniako eskola batekin. Haien proiektuak muntatu zituzten eta harat joan ziren hango *redadeg* (gure *korrika* bezalakoa) egiterat. Urte osoan, elebiduntasunaren gainean lan egin ondotik, Britainarainoko bidaia irudikapenik onena izan zien naski. Apustua egiten ahal dugu hizkuntzaren jebetza horrelako esperientziaz elikatzen dela.

Eskolan bertan aldiz, gramatika puntu baten lantzean adibidez, bakarrik euskaran fokalizatu ordez, *gramatika konparatua* bezalako sartzeak hobetsi beharko lirateke. Hau da frantsesarekin loturak, berdintasunak, ezberdintasunak identifikatzuz, hizkuntza bakoitzaren ezaugarri gramatikalak argiki alderatzea. Horrela, Frantsesaren konpetentzia euskarari kalkatzen ahal diete. Ondorioz, euskarako gaitasun gramatikala lortzeaz gain, ikasleek frantsesarena finkatuko dute era berean. Beraz, abantaila bikoitza dauka bi hizkuntzak batera lantzeak. Lan horrekin, tarteka bi mekanika erabiltzearen ahalmena garatuko dute ere bai. Horren neurtzeko, elkarrizketa metalinguistica antolatuz, Michaelen galdu zien bi hizkuntzetan pluralaren marka ezaugarritzea, adibidez. Horrek, esplizitazio maila biziki handia edukitzerat behartzen du. Azken finean, berezko hizkuntza gaitasunak garatzen ditu. Hauxe da elebidun ikaslearen abantaila adiezkorrenetakoia, lehen partean ikusi genuen bezala. Horrela ere, ikasleek bi hizkuntzak manipulatzeko usaia hartzen dute eta ahozkoa aberasteko paradak izaten ahal da haientzat.

2.1.1.3. Aspektu familiakoa

Alde afektiboa premiazkoa da haurrentzat. Egiazko jabetza lortzeko, euskara ikaslearen ingurumen afektiboari lotu behar zaio. Hemen, ez dugu bakarrik ikasleen irudikapena xedetzat hartzen, baina burasoena ere bai. Badakigu frangotan familia esparrua ez dela euskalduna, eta orduan eskolatik kanpo familiak ez dakiela bereziki zer pasatzen den ikasgelan. Orduan, haurrak bere ingurumenetik sostengua lortzen badu, plazerra handiagoarekin murgilduko da eremu euskaldun batean noski.

Getariako eskolan existitzen da plataforma bat irakasleak eta burasoek elkarrekin komunikatzeko. Lotura honen bidez, aitamek ikusten ahal dituzte klasean eginiko proiektuak, jarduerak, irratia grabaketak, bideoak, kirola... Xeeda da euskararen sarea zabaltzea. Batez ere, Getariako buraso anitzek lehenago ez zuten sekula entzun beren semea edo alaba euskaraz mintzatzen (ezta euskararik ere batzutan). Izan ere, haurrekin badute *irratia proiektua*: hilabetero podkastak grabatzen dituzte. Horren helburuetako bat da euskara jalgi dadin klasetik etxerat eramaiteko. Gisa berean, aitamek konkretuki iritzi bat ukaten dute eta agian ohartuko dira elebiduntasunaren interesaz: “*ene semea euskaraz mintzatzen da*”. Horren bidez, burasoen parte hartza sustatz, eragin positibo handia izanen da bi aldeen irudikapenetan.

2.1.1.4. Aspektu soziala eta historikoa

Haurren irudikapenak biltzeko, Moorek, bere ikerketan (2001), galdu zien ikasle batzuei pertsona elebidunaren buruaren barnea marraztea. Gehienek kolorezko banderak irudikatzen zituzten. Ikusten da irudimen kolektiboan banderari, eta hedatuz estatu bati, lotua dela hizkuntza. Euskararen kasuan, noski, problematika hau funtsezkoa da. Esplikatu behar zaile hori ez dela baitezpada egia eta estatu batean badirela hizkuntza ainitz. Historikoki, jakin behar dute euskara frantsesa baino lehen egon zela hemen. Gisa berean, lehen aipatu dugun egoera soziolinguistikoa ezin dugu ahantziko ere ez.

Baina errealtitate horiek ezin dira bapatean horrela *egia* bezala ezarri. Kontzeptio gatazka sortzen ahal baita ondorioz kaltegarria izaten ahal da. Dokumentu batzuen bidez, argazkiak edo bideoak ikusiz, ateraldiak eginez, kanpoko euskaldunak ezagutuz... kolektiboki eta emeki eraikiko dugu irudikapen berria. Historian, geografian, kirolan,... aukera ainitz badira Euskal Herria lantzeko eta ezagutzeko. Izan ere, ingurumen hurbila ezagutzea biziki garrantzitsua da lehen hezkuntzan. Gainera, gehienek euskal kultura apena ezagutzen dute eta azkenik Euskal Herria ez arras gehiago. Getarian, adibidez, ahalik eta maizen parte hartzen dute euskarari dagokien manifestaldietan: *korrika, euskaraldia, olientzero, ihauteria...*

Beraz, ikuspuntu orokorra ukan dezaten, aspektu horietan tarteka eta progresiboki lan egin behar litzateke, era berean euskaren aldeko proiektuak sustatuz. Erronka orokorra da euskara ezagutzea, eta hizkuntzari buruzko iritzia ukatea. Klasean aipatu dugun guziak eragin handia du hizkuntzaren irudikapen positiboak ukaiteko, eta beraz bere erabilpenari zentzua eta gogoa emaiteko. Gero, hizkuntza jabetzeko manerak garrantzia ukanen du ere bai.

2.1.2. Euskara: gaitasuna ala esperientzia?

Tesi hau Véronique Castellotik, Tours-eko unibertsitateko irakaslea, hizkuntzen didaktikan aditua, egindako lanetan oinarritzen da¹⁰. Gehienetan hizkuntzen irakaskuntza gaitasun multzo bat bezala aurkeztua da. Hau da, hainbat konpetenzia gaindituz gero, hizkuntza maila baterat iristen da ikaslea. Izan ere, Castellotik dio Frantzian, hizkuntzaren ikaskuntza objektu baten eraikuntza bezalakoa dela: tresnak sortuz, errazago transmititzeko, nolabait piezak bateratuz. Egia da programak helburuz eta gaitasunez osatuak direla, horrela aiseagoa baita ikasleen aitzinapena neurtzeko. Azken finean, helburua baita hizkuntza menperatzea edo *ukaitea*, sistema hetsia bezala, berez nahikoa. Alta, helburuak etengabe metatuz, *ongi mintzatzea* helezina iduritzen ahal da hiztun berriaren iritziz. Zailtasunen sortzailea izaten ahal da beraz, eta nolazbait ere, antsietate moduren blokatze jarrerak ageraraziz. “Xede hizkuntza” gaitasunez mugatua baita, jomuga zehatza ez lortzea porrota bezala hautemana izan liteke. Gaurregun ez gara oraino eredu horretatik osoki ateratuak.

Hortakoz, Castellotik *jabetza linguistiko-kulturala* hobetsiko luke hizkuntzaren ikasteko. Horretan, aspektu linguistiko formalaz gain, aspektu kulturala ere arrunt garrantzitsua da hizkuntza jabetza prosesuan. Hezkunde Nazionalaren programetan aspektu kulturalak gero eta gehiago agertzen badira ere, hortan gehiago lan egin beharko litzateke. Zehazki, kulturaz jabetzen da esperientzak biziz. Hortakoz, bi aspektuak, linguistikoa eta kulturala, simetrian ezarri behar dira, elkar osatzen baitute. Beren ideia segituz, bigarren hizkuntza testuinguru sozial batean kokatuz gero, alternatiba linguistikoa bilakatuko da haurarentzat. Horrela, atzerri hizkuntzaren estatusatik pixkanaka ateratuko da. Azken finean, *alter ego* moduko harremana eraikitzea da funtsezko helburua. Frantsesaren eta euskararen arteko harremanak sustatu behar dira, baliokideak bilaka daitezten. Horretarako, bakoitzaren identitatea ez da ukatu behar. Hori da, azken finean, programen eta orokorki irakaskuntza elebidunaren zentzua : elebitasun orekatua lortzea, bai linguistikoki, bai kulturalki, esperientzak biziz.

¹⁰Castellotti, V. (2014). L'hétérogénéité, fondement de l'éducation linguistique ? Vers des perspectives alterdidactiques. *Glottopol. Revue de sociolinguistique en ligne*, 23, 173-190.

Orduan, Getariako eskolan euskaraz egiten den lanak ahal bezain usu logika hau segitzen du. Konkretuki, haurrekin lan egiteko aukera ugari oparitzen dizkigu. Eman behar zaie, ikasgaien irakaskuntzaz gain, euskara erabiltzeko eta bizitzeko aukerak. Adibidez proiektuak sortuz, irrati saioak grabatuz, bideoak filmatuz, kanpoko euskaldunak ezagutuz, ateraldiak eginez, eta hainbat gauza geroago aipatuko ditugunak. Laburbilduz, paradigma horretan, euskararen jabetza esperientza anitzen ondorioa litzateke.

Laburbilduz, ikusi dugu jarduerak nola pentsatzen ditugun, ikaslearen irudikapena guziz aldatzen ahal dela. Ondotik pentsatu behar duguna da : zer baldintzetan euskara bizitzen ahalko dute ? Horretarako, ikasleak ikasgelan ongi senti daitezen, klima aproposa sortzea erabilgarria izanen zaigu.

2.2. Ikasgelako klima zaindu

Anna Turulak (2006) dio hizkuntz antsiestatearen iturriak ikas-ingurunean berez aurkitzen ahal direla. Esplikatzen du ikasgelako dinamikak egoera anitez osatua dela. Gauzak horrela, Horowitzek (1986) aipatzen zuen egoerazko-antsiestatea sortzen ahalko litzateke. Turulak horrela berenganatzen du : “*ikasgelan zirkunstantzia jakin batzuetan soilik agertzen den [antsiestatea]*”. Beraz, esparru seguru bat eraikitzeko, eta klaseari dinamika ona emaiteko, egoeretan lan egin behar da estresagarriak izan ez daitezen. Ikasgela gustuko esparria izan behar da. Horretan, gauza anitz egiten ahal dira.

2.2.1. Esparru segura eraiki

Hasteko, erran ahal genuke espazioarekiko atxikimenduak giro ona sor dezakeela. Haurrek hainbat leku laket baldin badituzte, plazerra ukaren dute horietan murgiltzean. Bisitatu ditudan klaseetan, irakasleek beti arreta handia eskaintzen zuten irakurketa xokoari, jostalekuari, afitxetan... Maiz egiten den gisan, ikasgela antolatua da ingurumen afektibo positiboa izan dadin.

Segitzeko, Anna Turulak dio ikasgela dinamika sortzea hobe dela. Batez ere, bakardadearen sentimendua saihestu behar da. Arriskua da, ikasleak ez badira tokiz aldatzen adibidez, bakoitzak bere aldean, nor bere lagun-minarekin, bakardadearen sentimendua emendatzea ikasle batzuengan. Horregatik, Turulak azpimarratzen du klasean mugimendua izatea premiazkoa dela dinamika sortzeko. Mahaiak kokatzeko manerak, adibidez, hortan eragin handia ukaiten ahal du. Ikasgela batean, nun mahai guziak arbelarat buruz itzuliak dira, ikasleak ezin xutituz, ez dela neholazko elkarrizketarik sortuko. Orduan, ikasgela nola pentsatzen dugun arras garrantzitsua daiteke mintzaira egoerak sortzeko. Hortan, talde-lanak eta lankidetzak haien logika atzematen dute.

Getariako eskolan, adibidez, ikasleek ardura handia badute. Atea pasatu duteneko, rolak banatuak zaizkie. Taulatxo batean, goizero agertzen da bakoitzaren izena bere eguneko erantzukizunarekin : *data, deia, eguraldia, eltzeitsua, paperen banaketa, tirrinta jo...* Ez hori bakarrik, ariketak bukatuz gero, ikasleek fitsik ez egin ordez, “laguntzaile” lepokoa janzten dute eta bertzeen laguntzerat joaten dira. Horrela, lankidetza bultzatzat, era berean ikasleek baduteardura klasean. Ikasle-taldeak koesiboak izanik, giro ona sortzen du egiazko interesa eta lotura baitituzte elkarrengan. Horrez gain, klasaren arauak ongi errespetatzen badituzte (isiltasuna, lekua garbitu, papera botatu...), “dirua” irabazten dute. Horrekin, irakasleari paper batean euskaraz idatziz, baloinak jartzeko erosten ahal dituzte, lekuz aldatzeko baimena, elastikoa zangoetan emaiteko... hainbat gauza klasea gustuko esparrua egiten dutenak. Adibide horiek, guziak ikusi ditudanak, dira bezainbertze gauza ikasgela eremu menperatua, ezaguna, eta jabetua egiten dituenak. Ondorioz, beraz, antolaketa horrek ikaslei paradak eta baldintza onak eskeintzen dizkie euskaraz aritzeko eta elkarrengandik ikasteko.

2.2.2. Okerraren estatusa eta ebaluaketa

Sarah Goutagnyk (2010) laburbiltzen du okerraren paradoxa. Alde batetik, irakasleak behar du okerra identifikatu eta zuzendu. Baino bertze aldetik beharrezkoa zaio ikaslea tronpatzea, ikas-prosezuaren partekoa baita. Nolabait ere, irakasleak akatsak egiteko egoerak sortzen ditu. Dewaelek (2009) dio antsietatea emendatzen ahal dela zailtasunak eta gabeziak nabarmentzen baititu gisa berean. Orduan, okerraren estatusa zein den klasean, ikasleen pertzepzioak arrunt aldatzen ahal dira. Arriskua da okerra hautaketa eta bereizte tresnatzat hartua izan dadin.

Okerrak luzaz konotazio gaitza eduki du. Etimologikoki, « hutsegitea » hitzak saposatzen baitzuen nolabait normatik kanpo ez dela egon behar, “egin behar ez dena” balitz bezala. Koñitiboki, porrotari lotua zaio eta logikoki horren irudikapen gaitza dakar. Bistan da, hizkuntzaren ikasketari dagokionez, erronka nagusietarikoa da. Baino, azken finean, Goutagnyk oroitarazten duen bezala : notazioak, meritoa, lehiaketa, eskolan hutsegitea... eraikuntza sozialak dira, hezkuntza sistema tradizionalki elitisto bati lotua. Berriz ere, helburua ez da okerra desageraraztea, baina estigmatizazua kentzea eta berari balio positiboa ezartzea.

Egun, eredu zaharretatik ateratzen hasten gara. Gero eta gehiago notaren sistema desagertzen ari da. Eskoletan, orain, *Livret scolaire unique* eta horrelako ebaluaketa tresna berrieik gaitasunetan ematen dute gehiago arreta. Baino notarik ez bada ere, irakasleak

ebaluaketaren beharra badu ikaslearen aitzinapena neurtzeko. Alderantziz, ebaluaketak eragin positiboa ukaiten ahal du, ikaslearen gaitasunak balorizatzen baititu.

Hizkuntzaren kasuan, lehiakortasunaren iturriak murrizten ahal dira ebaluaketa positiboa eginez. Adibidez, ikasle guziek maila bera dutela zehazteak antsietatea murrizten ahal du (Yoshida, 2013). Izan ere, lehen graduau ongi da azpimarratzea ikasle guziak gai direla ber gauzak errateko, galdetzeko, idazteko. Orokorki, konparaketak ekarriko dituzten egoerak ahal bezainbat saihestu behar litzke.

Getarian adibidez, uzten ditugu ikasleak ahal duten moduan bere burua adierazten. Noski, badakite klasaren arauetako bat dela euskaraz entseatza. Batzutan ez dute lortzen, gaizki erraten dute, blokatzen dira hiztegia ez baitzaie segidan etortzen. Egoera horietan, gure joera noski ez da ikasleak ahozkoartik kanportatzea. Alderantziz, lagunduko ditugu formulatzen haien ideiaren bukaera arte joan daitezen. Horrelakotan, euskaraz aritzeko ahalegina balorizatzen da batez ere. Ondotik, irakasleak ongi konprentu duela baieztagatzen dio, erantzuna adostuz, eta usu klaseari berriz errepikatuz. Horrela, mintzatzean, bakoitzak segurtasunarekin erantzunak proposatzen ahal ditu, okerrak egiten baditu ere, edo ez baldin badaki dena erraten. Azkenean, goiko galde- sortan ikusi bezala, ikasleek ez dira tronpatzearen beldur. Hori, ikasgela elebidunean, funtsezko iduritzen zait.

Oro har, ebaluaketa, okerra, edo meritua izanik, kasu egin behar da lehiaketa, sailkapena edo konparaketa sustatzen duten egoerekin. Hemen, ikasleek ez dute xerkatzen norberari kasu egitea. Epaitu ez sentitzea, erran dugun bezala, arrunt garrantzitsua da antsietatea egon ez dadin. Ahozko edo idatzizko ekoizpenetan, ez dira akatsetan egon behar baina gaitasunetan.

2.2.3. Frantsesaren lekua ikasgelan

Gilbert Dalgalianek (2009) dio erronka bikoitza dela. Alde batetik, funtsezko da ikaslea frustratua ez izatea. Frantsesa ikaslearen ama hizkuntza izanki, bere erabilpena debekatzeak frustrazioa ekartzen ahal dio. Horregatik, ikasgela elebidunean izanik ere, kontra-emankorra litzateke eta azken finean guretzat kaltegarria. Bertze aldetik, Dalgalianen erranetan, ikasleak konprentu behar du « *jokoaren araua euskararen erabiltzea dela* ». Bi xedeen bateratzeako, gakoa litzateke plazerra. Jokoak, antzerkia, kantuak, rolak... hizkuntza ikastean arrunt garrantzitsuak izaten dira. Ikasleen kuriositatea kilikatzeko, baitezpadakoa litzaieke libertitza ikastean. “*Plazerra ikasketaren erdian ez badugu ezartzen, irakaskuntza zer den ez dugu batere konprentu*”.

Uhandere eskolan, araua da « lehen hitza euskaraz », *euskal diatik* hartutako leloa. Ondotik, noski, geldetzen ahal du eskas duen hiztegia. Gero, zerbaiti kasu egin behar da. Gogoan dut ikasle batek bere galderak beti horrela hasten zituena “*nola erraten da + [dena frantsesez]?*”. Horrela, euskaraz galdezko ahalegina egiten bazuen ere, bazekien irakasleakez zuela itzuliko segidan kokatzen zen hiru minutuko galdera. Azken finean, alferkeria bilakatuzen. Beretzat, irizpide bat zen erran nahi zuena frantsesez errateko, euskaratik ez pasatz. Irringarria izan arren, euskararen saihestea ez da egiazki gure helburua. Bain, ikasle horrek euskaraz hitz egiteko muga erakusten digu. Alde batetik, araua errespetatu du, euskaraz hasi baita. Bain era berean, bigarren zikloaren hastapenean ez ditu euskaraz mintzatzeko gako linguistiko aski bere beharra esprimitzeko. Gisa horretan, debekatzen baldin badiogu frantsesa, frustrazioa izanen zaio eta are kaltegarriagoa euskararen ikasteko. Hala ere, guk beti euskaraz erantzunen diogu, problemarik gabe konprenitzen baitu. Hasten bagara haietan frantsesez, arteka horretan sartuko dira eta ez dira hortik ateratuko. Gainera, bere gaitasunetan sartzen baldin bada, ez da dudatu behar berak euskaraz errepika dezan. Denbora hartzen badu ere, ongi da usaia hau har dezaten.

« - *Nola erraten da* « je peux aller aux toilettes » ? » - « *hori, badakizu erraten...* »

2.3. Motibazioa: Hizkuntza jabetzearen gakoa?

Lehenago aipatu ditugun esperientziak ikasleak hizkuntzan engaia daitezen eginak dira. Hizkuntzaren jabetza berengandik etsori behar da. Orduan, interesa eta ikastekogogoa pizteko, motibazioa eragin behar da. Calvettik (1991) dio motibazioa apalagoa litekela bigarren hizkuntza ikastean lehenagokoan baino. Izan ere, motibazioa artifizialki ekarria eta sustatua izan behar da. Irakasleak, beraz, “ikasteko beharra” sortu behar luke artifizializazio horretatik ateratzeko. Horrela, hizkuntza egiazko tresna, erabilera sozialarekin, izanen zaio ikasleari. Beraz, gure rola da motibazioa sortzea euskara mintzatzeko gogoa eragiteko.

1970 hamarkadan, Vigotskyren soziokonstruktibismoaren teoriarekin batera, ikaslearen rola bere ikas prozesuan galdezkatzen hasi zen. Batez ere, paradigma berri horrek zion haurra bere ikaskuntzaren erdian kokatu behar zela. Ondorioz, bertzeak bertze, TADren teoria sortu zen (*Auto-Determinazioaren Teoria*) 1975an. Horren arabera, ikaslea bere arrakastaren egilea izan behar da eta horrek motibazioa arras emendatuko du. Michaelen klasean, funtzionamendu hau nabarmena da. Mintzatzeko gako guziak ez baditzte ere, haien mailan beti ere plazerra hartzen dute ari diren projektuetan, sorkuntza esparrua ukaiten baitute. Orduan, baldintza horietan, hizkuntzari eta ikaskuntzari buruzko iritzi ona baizik ezin dute ukan, horien aktoreak baitira. Hala ere, horrelako aktibitatetan motibazio osoa lortzeko, TADek hiru sentimendu ukaiten baldintzatzen ditu. Euskarari egokituko ditugu.

2.3.1. Autonomia sentimendua

TADren lehenbiziko ardatza da. Ikasleek sentitu behar dute laguntzarik gabe hitz egiten dutela eta bereziki beren baitatik lortzen dutela. Horretarako, adierazpenaren egileak izan behar dira. Logika horretan, klaseko proiektuetan haien borondadea eta beren aukera propioak segituz aritzen dira helburu baten lortzeko. Orduan, euskara tresna naturala izan beharko zaie. Aldiz, saihestu behar dira behartuak sentitzen diren egoerak. Horregatik utzi behar ditugu ahal bezain libroki ekoizten. Autonomia ez baita independentzia osoa ere, arauak finkatu behar dira. Baino, soziokonstruktibismoaren paradigmoaren barne izanik, haurrak elkarrekin edo bakarka esperimentatuz bakarrik lortzen dutela sentituko dute. Baldintza horietan, behar du sentitu bakarrik aritzeko euskaraz gai direla.

Euskararen zentzua usu lantzen dute Getarian. Batez ere, lehenago erran bezala, zergatik diren elebidun sailan, eta zer abantaila ukantzen dezakeen horrek. Horrela, hizkuntzaren kontzientzarekin proiektuez hobeki jabetzen ahalko dira, autonomian. Ikasleek usu taldeka sorkuntzak eraikitzen dituzte euskaraz. Irratiarekin adibidez, podkastak idazten dituzte eta ondotik haien ahotsak euskaraz grabatzen. Azken finean, hurren sorkuntza baita, balorazio handia dauka haientzat eta ingurukoentzat.

2.3.2. Gaitasun sentimendua

Ikasgelan, gaitasuna arrakastari lotua zaio. Orokorki, ikasleek ingurumenarekiko eragina dutela sentitu behar dute. Desafioak lortuz, helburuak kausituz, motibazioa emendatuko zaie. Hemen ere, euskaraz mintzatzeko kapable direla jakitea funtsezkoa da. Gisa batez, haien mailaren autoperzeptioarekin zerikusia badu. Antsietatearen erronkarik nagusietakoa baita, horretan lan egitea baitezpadakoa da.

Hortakoz ikasleak kausitze linguistiko egoeratan emaitea arras garrantzitsua da. Erran nahi du, kasu berezi batzuetan, lortuko dutela beren ideia erraten laguntzarik gabe. Erranaldi baten egitea arrakastatzat hartuko dute beraz. Gero, egitura sintaxikoak eta klaseko hizategia aberastuz, euskara lotsarik gabe ekoizten ahalko dute. Piskanaka, egoera linguistiko horiek oinarri sendoak bilakatzen dira elkarrizketetan eta ahozko ekoizpenean sartzeko. Errituetan, adibidez, horrelako egoerak badira. Adibidez, lantzen ahal dugu behar baten galdeketa, maiz agertzen baita eskolan. Horrela, urtean zehar “*nahi nuke*” forma egituratzen ahal dugu, bakoitzak bere nahia esprimi dezan nahi duelarik: “*kola nahi nuke, jostatu nahi nuke, data*

idatzi nahi nuke, eguraldia egin nahi nuke, komunetarat joan nahi nuke...". Egunero errepikaraziz, nahia adierazteko gaitasun sentimendua emendatuko dute. Ez baldin baditugu egoera anitz lantzen, bederen, funtsezkoak diren batzuk mekanizatzen ditugu. Horietan, bederen, mintzatzeko gai sentituko dira eta errazki mintzatuko dira.

2.3.3. Kidoresun sentimendua

Hirugarren sentimendua, bertze biak osatzen dituena, komunitate bateko kidea sentitzean datza. Horrekin, beraz, ikaskideekin lotua sentituko da, hainak importanteak zaizkiolako. Alderantziz ere, ikaslea bertzeentzat garrantzitsua sentituko da. Azken finean, elkarren beharra sustatuz taldekidetza sortuko da. Orduan, sozialki bertzeei identifikatuz gero, berdintasunak motibazioa bultzatzeko du ikaskideekin parte hartzeko.

Kidoresuna, berez, euskarako klasean aski naturalki agertzen da. Egia da, ikasgelan zein gizartean, euskarak komunitate sentimendua sustatzen duela askotan. Lehenago aipatu dugun *euskararen esperientzaren* printzipioa segituz, bai linguistikoki, bai kulturalki, helburua da haurrak hizkuntza maitatzen has daitezen.

Beraz, komunitate linguistikoaren barnekoak senti daitezen, *euskaraz* komunikazio egoerak sorratzetan ahal dituzten proiektuak bultzatzen dituzte Getarian : *Euskaraldia, korrika, mintza lasai*, ateraldiak, bisitak euskaraz, euskaldunekin aritu, eskolen arteko proiektuak... elkartasuna sustatzen duten esperientzia horiek "euskaldunen komunitatearen" kideak direla sentiaraziko diente. Hori zabalduz, oroit gaitezen eskolatik kanpoko hizkuntza-sozializazioa dela irakaskuntza elebidunaren funtsezko xedea. Horregatik, aspektu familiakoa ez da ahantzi behar eta burasoekin euskal ekimenei buruz komunikatu behar da. Egia da, haurrentzako gertakariak badirela ugari euskaraz: zinema, antzerkia, kontzertuak... Gainera, elkarrebatzuek proposatzen dituzte kanpo ekintzak euskaraz : adibidez, *Begiraleak* dantza elkarrebatzak Donibane Lohizunen. Aitamek ainitzetan ez badute euskara ikasteko aukerarik ukan, balio handiko sinboloa liteke haien luza dezaten euskararen sarea.

Azken batean, hiru sentimendu horiek elkar osatzen dute. Kidoresunaren sentimendua garatuko du eta autonomiaren baldintza izanen da. Bukaeran, euskara esperientzia ona izaiteko nahian, ikasleak nola biziko duen pentsatu behar da. Hortakoz, irakasleak hiru sentimendu horiek garatzen baldin baditu, klasari onugarria izanen zaio, motibazioa jardueren motorea izanen baita. Hala ere, horrelako lan baldintzak plantan ezartzen ahal dira ikasgelaren funtzionamendua zentzu horretarat bideratzen baldin badugu.

2.4. Pedagogia egokitu

Bukatzeko, nahi nituzke aipatu mintzaira antsietatea murrizteko lan irizpide batzuk. Ariketen forma, baita lan usaiak ere, konkretuki izanen dira harreman onaren egileak. Orduan, ikastaroan ikusi ditudan artean, enetzat garrantzitsuenak aurkeztuko ditut.

2.4.1. Errituen garrantzia

Gorago aipatu genuen bezala, antisestateak epe laburreko informazioaren tratamendua murrizten duenez, errepikapenak antsietatearen interferentziaren efektu negatiboak apaltzen ahal ditu. Hemen beraz, errituek zentzua dute. Ikerlek, urte hastapenetik menperatzen dituzten jarduerak parada bikainak litzke euskara lasaiki praktikatzeko. Ikerlek, urtean zehar ber antolaketa segitzen da egunero. Gelan sartu aitzin, haurrek badakizkite errituen noranzkoak, erabili behar den hizategia, haiengandik zer itxoiten dugun. Baita funtsezkoa dena ere, ez dute irakaslearen laguntzarik behar horren egiteko. Autonomia osoan aritzen dira.

Adibide gisa, gogoan dut *eguneko zenbakia*, hirugarren ziklokoek egiten dutena. Bistan da dena euskaraz erraiten dela. Ikerlek batek irakaslearen rol soziala hartzen du, eta zenbaki bat idazten du arbelean. Hortik goiti, usaiako galderak pausatzen dizkie ikaskidei : *zenbat hamarreko badira? Zer da aintzineko zenbakia? Gehiketarekin kalkulu bat nahi nuke...* Ikerlek errient(s)a balitz bezala ihardesten diote, erhia altxatuz. Tarte honetan, irakaslea bere gauzatan ari da eta ez ditu laguntzen ere. Irakasleak uzten ditu egiten astero bi aldiz errepikatzen dutena, ardura osoz. Hemen, preseski, hiru motibazioaren sentimendua lantzen dira : *autonomia*, bakar-bakarrik egiten baitute eta gidaritzaren kargua baitute. *Gaitasuna*, ariketa menperatzen dutelako eta hizategia baitakite. *Kidetasuna*, elkarren parte harketa behar dutelako horren egiteko. Irakaslearen azalean izateak inbertsioa emendatzen du eta mintzatzeko esperientzia soziala egiten die ere bai.

Erritua zein den, arrisku gabeko mintzaira egoerak izan behar dira, mintzatzeko beldurra ez eragiteko. Gainera, jakinen dute horietan euskaraz libroki murgilduko ahal direla. Hortan beraz, garrantzitsua da horien baliatzea euskaren erabilera bultzatzeko. Egunero, bererranaldiak izan arren, gaitasuneko sentimendua pizten du autonomian euskara ekoizten baitute, egunean bizpahiru minutuendako baldin bada ere. Horrek laguntzen ditu euskararen irudikapena positiboa ukaiten. Erranen nuke, beraz, errituek rol nagusietarikoa badutela antsietatea prebinitzeko.

2.4.2. Ariketen forma pentsatu

Tobiasek (1979) erraiten du, koñitiboki, arreta bideratzea garrantzitsua dela antsiestatea prebinitzeko. Bertze manera batez erranik, ikaslearen arreta aktibilitatean sartu behar dugu. Arriskua da, lan baldintzak aldatzen direlarik, ikasleak sentitzea zailtasun berri hau gainditzeko gai ez izatea. Ikasle antsietsuei baitezpadakoa zaie, beraz, ahalik eta maizen ariketaren forma bera atxikitzea.

Krietsbergek (1978) gomendatzen duena segituz, epe luzeko memoria erabiltzen duten ariketak hobetsi behar litzke. Asimilatuak diren ezagutzak erabiltzen baitituzte, kausitzeko xantza gehiago ukaren dituzte. Hala ere, epe laburreko memoria erabiltzen dituzten jarduerak ez dira saihestu behar. Orduan, hobe litzateke aktibilitate horiek formatu motibagarri batean izatea, arreta bideratuko duena : jokoak, ariketa simpleak, problemak, desmartxa esperimentalak... Hemen ere, nozio berri baten barneratzeko, ariketaren forma ezagutzea lagungarria izaten ahal da.

Adibidez, Getarian, egunero “buru kalkuluko kaiera” erabiltzen dute matematikako pundu berriak baita jadaneko ikusiak ere lantzeko : zenbaki diktaketa, biderketak, buru kalkuluak, zenbakuntza, zatiketak... Aldiroz, 10 emaitza kaieran idazten dira. Arkatzez idazten dugu zenbakia behar den laukian. Lerroa bukatua delarik, axota berdea hartzen dugu eta erhia altxatzen dugu zuzentzeko prest garela erakusteko. Bakoitzak aldika arrapostua erraiten du eta arbelan irakasleak apuntatzen ditu. Okerrak elkarrekin zuzentzen ditugu eta kaieraren bukeran gure emaitza margotzen dugu.

Egunero formatu hau atxikiz, ikasleak badaki zer itxoiten dugun berarengandik. Ez da insegurtasunik jardueraren aspektu guziak barneratuak direlako. Gainera, mintzaile handiak zein tipagoak berdinki ausartzen dira eta elkarren arteko tratemendu berdina ukaiten dute. Beraz, ariketa formatu berri batean soberan izaten ahal zitezkeen informazioak sahiesten ditugu hemen. Orduan, nozio berriari lotutako zailtasunak baizik ez dira gelditzen. « Formatuaren zailtasuna » sahiestu baitugu, nozio berria lantzen ahal dugu lasaiago eta hortan konzentratuz.

Laburbilduz, ariketaren antolaketa beti argia eta ezagutua izanik, ikasleak ez dira informazio galtzearen beldur izanen eta kausitzeko xantza gehiago ukaren dituzte. Horregatik hobe litzateke urte hastapenetik eta ahal bezala ariketa forma berdinak atxikitzea.

2.4.3. Proiektu pedagogiaren tokia

Getariako eskolan eginak izan diren proiektuak jadaneko aipatu ditut anitz. Baino, bigarren parte hau horrekin bukatu nahi nuke. Proiektu pedagogikoak erran dugun guziari oihartzuna eginen dio. Izañ ere, ene proietkuan ikasleak autonomian izanen dira, ideiak eta hautuak adostuko dituzte, euskaraz ekoiztu beharko dute idatzian zein ahozkoan. Lankidetzan ariko dira, tresna numerikoak erabiliko dituzte, haien ekoizpenaren ardura ukamen dute.

Azken finean, proiektu pedagogikoa egoera konplexu bat da. Ikasleek ukamen dituzte helburua, erronkak, etapak, esperientzak. Bereziki, ikasleak horren erdian izanen dira hastapenetikbukaera arte. Helburua da proietkua jabe dezaten, *haiena bilakatzeko*.

Guretzat, beraz, bilduma gisa hartuko dugu. Orain, bigarren parte osoan garatu duguna nahi dugu entseatu. Irakasle gisa, nahi dugu mintzaira antsietatea prebinitzen duen pedagogia ezarri gure sekuentziaren zehar. Era berean, nahi dugu jakin ikasleak nola aritzen diren lanean eta euskararekin nola moldatuko diren.

Azken parte batean, beraz, ikastaroan plantan ezarri dugun sekuentzia aurkeztuko dut, goikoarekin lotura eginez.

3. Getariako albistegia projektua

3.1. Proiektuaren aurkezpena

3.1.1. Sekuentziaren egitura

Ene MEEF masterrako ikaskidearekin, haurrekin lan egin nahi izan dugu proiektu berezi batean. Entseatu gara zerbait originala proposatzen, haurrak motibazioarekin jabe dezaten proiektu hori. 2020ko azaroan abiatu genuen eta abenduan bukatu, lau ikastaroko asteren buruan. Haurrek 2021eko urtarilaren hastapenean emaitza ahal izan zuten.

Proiektu honen azkeneko eginkizuna albistegi baten sortzea da. Talde bakoitzak erreportaia bat osoki sortuko du, eta guziak bateratzean ildo editoriala sortuko da. Hau da saioen zehar izanen dugun xedea. Bitartean, etapa anitz izanen dira, ideien asmatzetik bideoen grabaketarat, afitxen marrazteatik pasatuz. Hemen agertzen da sekuentziaren antolakuntza, zazpi saiotan zatitua:

1. Saioa	Taldeak sortu, gaiak jabetu, elkarrekin informazioak xerkatu
2. Saioa	Ideien egituratzea, ordenagailuan idatzi
3. Saioa	Aurkezpen afitxa baten marrazketa atal bakoitzarentzat
4. Saioa	Errolen banaketa eta filmaketa (hastapena)
5. Saioa	Filmaketa (segida eta bukaera)
6. Saioa	Ahotsen grabaketak
7. Saioa	Erreportaien aurkezpenak klasearen aitzinean

Geroago zehatzago azalduko dudan bezala, hemen ikasleak euskararekin zuzenki harremanetan izanen dira. Batez ere, proiektu horretan hizkuntza dimentsio guziak erabiltzerat bideratuak izanen dira : ahozkoa, idatzia, irakurmeha... Orduan, euskara ez da baitezapada haientzat finalitatea izanen, baizik eta produkzioetarako tresna naturala. Gauzak horrela, guretzat interesgarria izanen da ikustea ikasleak nola moldatzen diren euskaraz proiektu baten kari.

3.1.2. Sekuentziaren helburuak

Preparaketa lanaren helburuak :

- Proiektuaren xedea konprentu
- « Podkast » formatutik abiatuz erreportaia sortu
- Telebistaren lanbideak ezagutu (filmatzailea, filmagilea, aurkezlarria, aktorea)
- Gaiak finkatu eta garatu (erredakzio mintzaldia)
- Pertinenteak diruditen informazioak adostu
- Saioaren gidoia finkatu
- Afixak marratzu
- Parte harketa orekatu taldekideen artean
- Soinu muntaketaren erronkak ezagutu
- Bideo muntaketaren erronkak ezagutu

Grabaketaren helburuak :

- Telebista saio baten baldintzetan grabatu
- Telebistaren lanbideak probatu (filmatzailea, filmagilea, aurkezlarria, aktorea)
- Tresna numerikoak manipulatu (tableta, ordenagailua, mikrofonoa)
- Bakoitzak bere rola errespetatua
- Jestuekin talde tekniknoarekin komunikatu
- Mikrofonoan argiki mintzatu
- Irratian preparatu dugun testua grabatu
- Bideoan preparatu ditugun gertaldiak filmatu

3.1.3. Lan baldintzak

Ikasgelan 3 maila ezberdin direnez (CE2, CM1 & CM2), zikloei begira egokitu ditugu gaiak, instrukzio ofizialek dioten arabera. Orduan, CE2-rendako hautatu ditugu gai “deskriptiboagoak” eta, bistean dena, ezagunak. Lehenik, talde batek *Vendée Globe* lasterketari buruz hitz eginen du, lasterketa segitzen baitute paraleloan. Gero, COVID-19ak behartzen dizkigun neurriak ezagunak zaizkie orain eta hortan ere badute errateko. Hirugarrenik, ikasle Florian HERARD-MAYA | L'anxiété langagièr en classe bilingue | Mintzairia antsietatea ikasgela elebidunean | Université de Bordeaux | Master Métiers de l'Enseignement, de l'Education et de la Formation | Année universitaire 2020-2021

orok *klaseko funtzionamendua* menderatzen baitute, ez da zaitasunik izanen hortaz mintzatzeko. Edozein gisaz, haien ingurumenari edota ezagutzen duten egoerei buruzko gogeta egin behar dute. Badakiten hiztegia erabiliz, garrantzitsuak zaizkien informazioak hautatzen ahal dituzte. CM1 eta CM2rentzat, alta, gaiak problematizatuak zaizkie, EMC-ri lotzeko eta gehiago hipotesietan sartzeko. Bietako batek ingurumenari buruz hitz eginen du. Problematika bati erantzun beharko dute : *zer egiten dugu eskolan ingurumena babesteko ?* Bertzeak, jazarmenaz mintzatuko dira istorio batetik abiatuz : *Maider gerezi tomate, Laure Monboulou.*

Hautatu dugu taldeak aitzinetik eraikitza, baita gaiaren banaketa ere. Gure ustez, ikasleei gaiaren hautua uzten bagenien, saio bat gehitu beharko zen hortakotz. Naski ezin genuen astia ukaren proiektua bururatzeko ikastaroa bukatu aitzin. Horrez gain, ikasleek beti lagunarekin izan nahi dute... Denbora galtzeaz gain, ezin ditugu taldeen osaketak kontrolatu.

Gero, hizkuntza mailako desberdintasunak orekatu nahi ditugu. Hala ere, ez ditugu ber euskara mailako taldeak egin nahi. Mintzaile tipiak haindiagoekin eman nahi ditugu, talde dinamika sortzeko. Bertzenaz, arriskua hartzen dugu mintzaile tipiek ez dezaten fitsik ekoiz. Nahi ditugu taldeak berdinki lor dezaten etapa guziak egiten. Horrela, gaitasunaren sentimendua bultzatuko dugu autonomiarenaz gain.

CE2	CM1 - CM2
<p><u>1. taldea :</u> <i>Vendée Globe</i> Nola - Nekane - Tao</p>	<p><u>4. taldea</u> <i>Liburu baten aurkezpena</i> Loane - Simon - Pablo - Nelia</p>
<p><u>2. taldea :</u> <i>Klaseko funtzionamendua</i> Colette - Ony - Agathe - Idoia</p>	<p><u>5. taldea</u> <i>Zer egiten ahal dugu eskolan ingurumena babesteko?</i> Luce - Betti - Fanny - Maia</p>
<p><u>3. taldea</u> <i>COVID-19 Getariako eskolan</i> Lucie - Oihan - Lutxo</p>	

Bistan da, neurri batean guk laguntzen ahal ditugu, ideiak formulatzen lagunduz, trabatzen duten erramoldeak euskararat itzuliz,... Horrela, nahiz eta ikasle hobe batekin izan, mintzaile tipiak ingurumen seguruagoa ekoizteko atzematen ahal du gure laguntzarekin, eta aitzinatzen

den lan batean parte hartzen duela ikusiz. Proiektu guziaren zehar, beren inguruan izanen gara eta gidatuko ditugu behar duten momentuetan.

3.2. Hautuen justifikazioak

Lehenik eta behin, gure proiektua Hezkunde Nazionalaren aginduetan sartzen dela erakutsi nahi dugu. Getariako albistegiak *Socle communeko esparru ezberdinak zeharkatzen* ditu. Lehenbizikoa, *hizkuntzak pentsatzeko eta komunikatzeko*, guretzat garrantzitsuena da. Izañik ere, euskararen erabilera, eta beraz antsietatearen problematika, prisma horretatik landua izanen da. Bigarrenak, *metodoak eta tresnak ikasteko*, talde lanak muntatu, lankidetza bultzatu, ikerketa desmartxak ezarri eta batez ere proiektu kolektiboen egiterat sustatzen ditu. *Herritar heziketan* ere bai, gaitasun anitz horretan landuko ditugu. Landutako programen gaitasunak preparazio fitxetan sartu ditut zehazki (cf. Annexe 2.3).

Hortik abiatuz, gure intentzio nagusia izan da ikasleen motibazioa piztea. Memorio horretan usu azpimarratu bezala, euskara ekoizteko premiazko baldintzat hartu dugu. Hortakoz, azkeneko eginkizunak motibatu behar ditu. Albistegiaren formatuak, gure ustetan, iragарpen onak ekarriko ditu eta antsietatearen harresi naturala izanen da. Gero, sekuentziaren iragaitean, saio bakoitzean proiektua eraikitzeko harri bat gehitzen dugula sentitu beharko da. Horregatik, zazpi saioak filmaren sortzearen etapak dira. Horietan, autonomiako sentimendua arrunt garrantzitsua izanen da : ikasleek bakarrik lan eginen dute, agindua jakinik, eta gure laguntzarekin haien gidatzeko. Askatasun sentimenduak, ideien atzematean, bideoak grabatzean... gaitasunarena areagotuko du ondorioz. Elkarrekin lan eginez, kidetasuna ere bultzatuko dugu. Azken finean, proiektuan lan eginez, motibazio gurpil zuhur batean sartu nahi ditugu.

Bistan dena, proiektu hau egizako esperientzia dela. Frantsesaren gisan, hemen xedea dugu euskara erabiltzea, edozein gauza errateko. Jabetza linguistiko-kulturala xerkatzen dugu, haien arreta helburuan finkatuz. Proiektuaren jabetza eraikiko dugu esperientza guzietan oinarrituz. Gainera, ezagutzen duten esparruan ariko dira. Ezaguna den hiztegia, materiala, gela,... segurtasun pundiak izan zaizkie gaiei buruz pentsatzeko eta gero filmatzeko. Arrunt libro direno, berez kausitze egoeran emanen ditugu eta ahalik eta lasaien izanen dira euskaraz(edo frantsesez) ekoizteko.

Horren ondorioz, nahi dugu euskararen irudikapen positiboa bultzatu. Lehenik, hizkuntzaren estatusari dagokionez, hemen euskara ez da finalitatea. Orduan, mintzatzeko tresna naturala izanik, jadaneko normalizazio prozesuan sartuak dira. Gero, bistan dena, ez dugu frantsesa nehola debekatzen, elkarrekin mintzatzeko. Ideiak eztabaidatzeko, filmatzeko Florian HERARD-MAYA | L'anxiété langagière en classe bilingue | Mintzaira antsietatea ikasgela elebidunean | Université de Bordeaux | Master Métiers de l'Enseignement, de l'Education et de la Formation | Année universitaire 2020-2021 43

angeluak atzemaiteko, edo rolak banatzeko, argi dugu ez dutela dena euskaraz eginen. Bainan, erran bezala, ez dugu frustraziorik nahi. Idatzian, alta, printzipioz ez du arazorik sortuko, proiektua euskaraz izanen dela hastapenetik ongi baitakite.

Azken finean, helburua da ere haien burua euskaraz mintzatzen ikustea eta entzutea. Bideo formatua egokia da gainera, etxerat eramanen ahal dutelakoz. Horrela, burasoek ikusiko dute haien semea edo alaba euskaraz mintzatzeko gai dela. Afektiboki, alde hau arras garrantzitsua izanen da bi aldeetan. Haurra arrunt harro izanen da burasoei bere lana aurkeztean. Alderantziz ere, saposatzen dugu aitamek berataz harro izanen direla ere. Orduan, hemen berriz, kidetasunaren sentimenduarekin lotzen ahalko dugu.

3.3. Bilduma

Orokorki, proiektua biziki ongi pasatu da. Bortz erreportaiak batuz, hamaika minutuko albistegiaren sortzerat iritsi gara. Haurrak biziki kontent izan dira eta arreta handiarekin begiratu dute. Gehienek segidan galdu didate gako USBn emaiteko, haien burasoei erakusteko. Harrotasun horrek gure proiektuari bururapena eman dio.

